# Hezkuntza eraberritu ote liteke?
# Pero… ¿es posible innovar la Educación?
# *But is it possible to innovate Education?*



**Ezagutza premiazko produkzio-faktore masiboa bilakatu da, eta beraz, potentzial soziologiko eta politiko berrien eratzaile. Horrek, zibilizazio-garai baten amaiera iragarri du. Hainbat dira zibilizazio-garai hori eraldatu duten gatazkak: etengabeko gerra, kulturaren ondoeza, krisialdi ekonomiko gorabeheratsu eta ezegonkortzaileak, herritarren eta euren erakunde politikoen arteko haustura… eta Hezkuntzaren mundu-mailako krisialdia, herrialde aberatsetan "eskola-porrota" esaten zaionak eta gainontzeko herrialdeetan heziketarik ezak agerian uzten duten krisia.**

**Egoera horren aurrean bi jarrera izan ditzakegu, batetik konformismo etsigarria –"gauzak horrela dira eta nik ezin dut ezer egin"– eta bestetik gizarteek eta kolektiboek, tokian tokitik hasita, inguruko errealitatea eraldatzeko duten sormena suspertzea. Ekintza sortzaileen sekuentziari esango diot eraberritzea.**

**Managementaren joera nagusiek gizaki arruntengandik urrun kokatu dute ekintza eraberritzailea, boteretsuen eliteari edota jakintsu bakanei lotutako zerbait bailitzan, esoterikoa ia. Modu horretan, eraberritzea**

La emergencia del conocimiento como factor masivo de producción y conformador, por tanto, de nuevos potenciales sociológicos y políticos, anuncia el fin de una era civilizatoria, cruzada por múltiples convulsiones: la guerra permanente, el malestar de la cultura, las crisis económicas fluctuantes y desestabilizantes, la ruptura de la ciudadanía con sus instituciones políticas… y la crisis de la Educación, manifestada a nivel planetario en el llamado "fracaso escolar" en los países opulentos – y en los otros, por la lisa y llana ausencia de educación.

Ante esta situación puede adoptarse un conformismo frustrante –"las cosas son como son y están fuera de mi alcance"- o activar la capacidad creativa de las sociedades y los colectivos para transformar, desde lo local, desde las redes de proximidad, la realidad circundante. Es a esta secuencia de actos creativos a lo que voy a llamar innovación.

Las corrientes principales del management han considerado el acto innovador como algo lejano a la mayoría de los mortales, ligado a élites de poderosos o genios individuales, algo casi esotérico, desactivando en la sociedad la idea de

*The emergence of knowledge as a mass production factor, and therefore, as a creator of new sociological and political potentials, announces the end of a civilising era, criss-crossed by multiple upheavals: permanent war, the malaise of culture, fluctuating and destabilising economic crises, the breaking-away of citizens from their political institutions and the crisis in education, manifested on a worldwide scale in the so-called "academic failure" in affluent countries —and in others through the pure and simple lack of education.*

*Faced with this situation, one could either adopt a frustrating conformism —"things are as they are and are out of my reach"— or the creative capacity of societies and groups could be activated to transform, from the local aspect and from proximity networks, the surrounding reality. It is this sequence of creative acts that I am going to call innovation.*

*Principal trends in management have considered the innovative act as*

Hezkuntza eraberritu ote liteke?

Pero... ¿es posible innovar la Educación?

*But is it possible to innovate Education?*

**–gauza berriak sortzea– etenik gabe sortzen den ekintza soziala dela ahaztarazi diote gizarteari. Baina ikuspegi hori erabiliko dut hezkuntza –horren jardueraren izaeragatik– eraberritzeko alor ezin hobea dela adierazteko... bere funtzionamenduaren errutina aspergarriak bertan behera uzten baditu bederen!**

## Nola eraberritu?

**Bost ideia proposatuko ditut, hezkuntzaren alorrean eraberritzeko saioa bideratzeko baliagarri izan daitezkeenak:**

1. **Eraberritzea ez da gauza ezohikoa, berezia; gertakari-kate ororen baitan dago eraberritzeko aukera.**
2. **Fenomeno berbera dira eraberritzea eta "etortzeko dagoena" ekoizteko ezagutzaren etengabeko hedapena. Ezagutzak mugak gainditu behar ditu beti –ikusten dugun errealitatearen eta nahi dugun errealitatearen arteko fuga-marrak bilatu–, eta horren arabera, modu ikusgarriagoan edo apalagoan, etengabe eraberrituko du.**
3. **Eraberritzeak oinarrizko hiru faktore behar ditu beti: ezagutza, boterea eta subjektibotasuna. Hau da, ez da prozesu lineala, kaosaren legeen mende dagoen prozesu konplexua baizik. Ezagutza ahulak, esklerosiak jotako botereak eta modu objektiboan har daitezkeen neurriek ez dute eraberritzea ezabatzen, erresistentzia-, boikot- eta desertzio-moduetara desbideratu baizik –eta zenbait kasutan ezarritako antolaketa-sistemaren aurkako eraso zuzenetara–.**
4. **Nahia eraberritzea bultzatzeko ezinbesteko motorea da. Nahi dugunak bakarrik du -edo lortzen du- gertakari errepikakorrak edo aurkakoak eraldatzeko indarra.**
5. **Ezarritako botereen kontroletik at dagoen koalizio eta sare-sistema konplexuaren bidez egituratzen da eraberritzea indar transformatzaile gisa. Ezinezkoa da eraberritzea antolatzea, hau da diseinatu edo egituratu.**

## Hezkuntza eraberritzea

**Guztiok uste dugu hezkuntza eraberritu egin behar dela; baina badirudi eraberritzea goragoko instantzien eskuetan uzten dugula, gugandik kanpo, eta hori da arazoa: ezagutzen ez ditugun adituen esku uzten dugu eraberritzea, "esklerosiak jotako eta sarritan esklerosia hedatzen" duen boterearen ordezkari diren "agintarien"**

que la innovación –generación de lo nuevo- es un acto social que se reproduce continuamente. Pero este es el enfoque que voy a adoptar, para señalar que el ámbito educativo es –por la propia esencia de su actividad- un campo privilegiado para innovar... ¡siempre que rompa con sus frustrantes rutinas de funcionamiento!

## ¿Cómo se produce la innovación?

Propongo cinco ideas que pueden guiar el intento innovador en el campo educativo:

1. La innovación no es un hecho extraño, especial; en toda sucesión de acontecimientos está contenido el potencial de innovación.
2. La innovación y el despliegue constante del conocimiento en la producción del porvenir son el mismo fenómeno. En la medida en que el conocimiento tiene siempre que traspasar fronteras –encontrar líneas de fuga entre la realidad percibida y la realidad deseada- innova, más o menos espectacularmente, de forma continua.
3. La innovación tiene que contar siempre con tres factores o condicionantes esenciales: El conocimiento, el poder y la subjetividad. Es decir, no puede manifestarse como un proceso lineal, sino como un proceso complejo sometido, por tanto, a las leyes del caos. Conocimientos débiles, poderes esclerotizados y medidas objetivables no eliminan la innovación, sino que la desvían en formas de resistencia, boicot, o deserción, cuando no de agresión directa al sistema organizacional establecido.
4. El deseo es el impulsor fundamental y definitivo de la innovación. Sólo lo que queremos tiene –o adquiere- fuerza, potencia, para transformar el curso de los acontecimientos repetitivos o adversos.
5. La innovación se estructura como potencia transformadora a través de un complejo sistema de coaliciones y redes que escapan al control de los poderes establecidos. No es posible ordenar la innovación.

## Innovar la Educación

Todos sentimos la necesidad de innovar el hecho educativo; el problema radica en que parece que este hecho innovativo lo seguimos "delegando" a instancias superiores, ajenas a nosotros: a expertos a los que no conocemos, a las "autoridades" que

*something removed from most mortals, linked to powerful elites or individual geniuses, something rather esoteric, deactivating the idea that innovation— the generation of all things new— in society is a social act which is continuously being reproduced. Yet this is the focus that I am going to adopt, to show that the area of education is —by the very essence of its activity— a privileged field where one can innovate, providing that we break its frustrating working routines!*

## *How does innovation come about?*

*I am proposing five ideas which may guide attempts at innovation in the field of education:*

1. *Innovation is not a something strange or special; the potential for innovation exists in every succession of events.*
2. *Innovation and continuous dissemination of knowledge in the production of "what is to come" (non predictable future) are the same phenomenon. Insofar as knowledge always has to cross frontiers —to discover paths of least resistance between perceived reality and desired reality— it is continuously innovating in a more or less spectacular way.*
3. *Innovation must always include three essential factors or conditions: knowledge, power and subjectivity. In other words, it cannot be shown as a linear process, but rather as a complex process subject, therefore, to the laws of chaos. Weak knowledge, fossilized powers and objective measures do not eliminate innovation, they reroute it into forms of resistance, boycott or desertion, if not into direct aggression, towards the established system of organisation.*
4. *Desire is the fundamental, definitive driving force behind innovation. Only what we want to have, has —or acquires— the force or the power to transform the course of repetitive or adverse events.*
5. *Innovation is structured as a transforming power through a complex system of coalitions and networks*

**esku... Eraberritzeko indarra gure eskuetan dagoela onartu eta indar hori aktibatzeko gogoa izan behar dugu.**

**Tokian tokiko ingurunetik hasita eraberritzen dugu; gure arteko elkarrizketetan gauza berriak sortzen dira, eta hortik abiatuta gure harreman-sareen bidez daramagu aurrera eraberritzea. Deleuze eta Guattariren hitzetan ("Mil mesetas"), "Eskizoanalisiak edo pragmatikak ez dute beste zentzurik: egin ezazue errizoma, baina ez dakizue zerekin egin dezakezuen, zein lurrazpiko zurtoinek sortaraziko duen errizoma edo gertatuko ote den, biztanleriarik sorraraziko ote duen zuen basamortuan. Esperimentatu ezazue.**



**Esatea erraza da! Baina ez dago aurrez prestatutako gertakarien edo anizkoiztasunen ordena logikorik, irizpideak daude, eta garrantzitsuena da irizpideok ez direla gerora osatzen, unean bertan erabiltzen ditugu eta arriskuen artean gidari ditugu, nahikoa dira horretarako".**

**Gertakarien elkarrekintza, subjektibotasuna –interpretatzeko gaitasun gisa– edota bultzatzen gaituen nahia –nahi eta maite dugun hura– egunero gure hezkuntza-zentroetan bizi izaten ditugu, eta egiten dugun guztia eraberritzeko gaitasun primarioa osatzen dute. Hala ulertzen badugu totemen gainbehera etorriko da. Azpimarratu nahiko nuke Lanbide Heziketan lan hori ia-ia naturalagoa dela, bertako eragileen ezaugarriengatik eta lan-munduarekiko duen hurbiltasunagatik.**

son parte del poder "es-clerotizado" y muchas veces "esclerotizador"... Innovar significa aceptar que la potencia está en nuestras manos y desear activarla.

Innovamos desde lo local, desde las conversaciones que entre nosotros mantenemos de forma que en ellas emerge lo nuevo, y desde ahí, a través de las redes relacionales que somos capaces de establecer. En palabras de Deleuze y Guattari ("Mil mesetas"), "El esquizoanálisis o la pragmática no tienen otro sentido: haced rizoma, pero no sabéis con qué podéis hacerlo, que tallo subterráneo hará efectivamente rizoma, o hará devenir, hará población en vuestro desierto. Experimentad.

¡Qué fácil es decirlo! Pero no hay orden lógico preformado de los devenires o de las multiplicidades, hay criterios, y lo importante es que estos criterios no son posteriores, se ejercen sobre la marcha, en el momento, bastan para guiarnos entre los peligros."

La interacción en el acontecimiento, la subjetividad como capacidad interpretativa, el deseo –aquello que queremos y amamos- como motor de impulsión, todo esto que ocurre todos los días en nuestros centros educativos constituye la capacidad primaria para innovar aquello que hacemos. Si lo entendemos así, llegará el declive de los tótems. Y hago notar que, precisamente en la Formación Profesional, por las características de sus agentes y su proximidad al mundo laboral, esta tarea es, casi, más natural.

*which escape the control of the establishment. Innovation cannot ordered, i.e., designed or structured.*

## *Innovating Education*

*We all feel the need to innovate the educational event; the problem lies in the fact that we go on "delegating" this innovative event to higher powers, far removed from us: to experts who we do not know, to the "authorities" which are part of this "fossilized power" and very often the "fossiliser". Innovating means accepting that we hold the power in our hands and the desire to activate it.*

*We innovate from a local basis, from conversations we have with one another, from where all things new come, and from there, through relational networks which we are able to establish. In the words of Deleuze and Guattari ("A Thousand Plains"), "Schizoanalysis or pragmatics has no other meaning: make a rhizome, but you do not know what to make one with, what underground stalk will effectively create a rhizome, or will transform things, will create a population in your desert. Experiment.*

*It is very easy to say that! But there is no logical order preformed from transformations or from multiplicities, there are criteria, and what is important is that these criteria are not subsequent, they occur as things progress, in the moment, they are enough to guide us through the dangers."*

*Interaction in the event, subjectivity as an interpretative capacity, desire —what we want and love— as the driving force, all of this which takes place every day in our schools constitutes the primary capacity to innovate what we do. If we view it like this, there will be a decline in totems. And I would also point out that, particularly in Vocational Training, due to the characteristics of its agents and its proximity to the world of work, this task is, almost, more natural.*

*Yet this attempt must make those in charge of the education sector and the managers of schools reflect on this*

## Hezkuntza eraberritu ote liteke?

**Baina saiakuntza horrek beste kontzeptu baten inguruan hausnarketa egitera bultzatu behar ditu hezkuntza-sektoreko arduradunak eta zentroetako zuzendariak: denbora. Hezkuntzan denbora errepikatze hutsa izaten segitzen duen heinean (gela bera, ikasgai bera, metodo bera, ordutegi bera...) eraberritzea beste inoren gauza izango da (norbaitek nonbaiten egingo duena) edo bigarren mailako zerbait (denbora "gelditzen" bazaigu, pentsatuko dugu nola eraberritu...).**



**Sormenerako denbora hezkuntza-prozesuaren bihotzean kokatzeko ordua iritsi da, eta ondorioz, berria dena, nahi dena, bultzatzeko elkarrizketak ere bere lekua behar du. Guzti horrek errutina eta metodologia dagokien tokian jarri beharko lituzke: nahi dena egiteko tresna izan daitezen eta ez oinarrizko portaera-eredua, behar denerako laguntza apala baizik eta ez oinarrizko gida.**

**Ulertuko al dute hezkuntza-sektoreko arduradunek eta hezkuntza-zentroetako zuzendariek elkarrizketak tokian tokitik konexio-sareetara kudeatzen (badakit adiera aldetik argia ez dela, baina laburtzeagatik erabiltzen dut) ikastea dela hezkuntza-eraldaketaren oinarria?**

**Alfonso Vázquez**
**HOBEST Consultores**
**avazquez@hobest.es**

## Pero... ¿es posible innovar la Educación?

Pero este intento debe hacer reflexionar a los responsables del sector educativo y a los directivos de los centros sobre otro concepto: El tiempo. En tanto en cuanto la educación se fundamente en el tiempo como repetición (la misma clase, la misma asignatura, el mismo método, el mismo horario...) la innovación pasa a ser una cosa ajena (alguien la hará en algún lugar ignoto) *o* marginal (si "sobra" tiempo, pensaremos...).

Ha llegado el momento de situar el tiempo de creación en el corazón del proceso educativo y en consecuencia las conversaciones como impulsión de lo nuevo, de lo deseado. Todo ello debería relegar lo rutinario, lo metodológico, a su lugar: Un instrumento para realizar lo pretendido y no patrón básico del comportamiento, un modesto apoyo cuando necesario y no más una guía básica.

¿Entenderán los responsables del sector educativo y los directivos de los centros educativos que aprender a gestionar (la expresión es equívoca, pero la utilizo por brevedad) las conversaciones desde lo local hacia las redes de conexiones es la base de la transformación educativa?

Alfonso Vázquez
HOBEST Consultores
avazquez@hobest.es

## *But is it possible to innovate Education?*

*concept: time. Insofar as education is based on time as repetition (the same class, the same subject, the same method, the s ame timetable), innovation becomes a distant (carried out by someone in an unknown place) or marginal thing (if there is any time "left over", we will think…).*

*The moment has come to place creation time at the very heart of the educational process and, consequently, conversations to drive forward the new, the desired. All this should relegate the routine, the methodological to its rightful place: an instrument to carry out the intended and not a basic pattern of behaviour, a modest support when required and no longer a basic guide.*

*Will those in charge of the education sector and managers of schools understand that learning how to manage (the term is ambiguous, but I use it sparingly) conversations from the local element to connection networks is the basis for educational change?*



*Alfonso Vázquez*
*HOBEST Consultores*
*avazquez@hobest.es*